

## Bestelako Xedapenak

### ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

3341

AGINDUA, 2010eko ekainaren 30ekoa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, familia eta lana bateragarri egiteari buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuan aurreikusitako laguntzen zenbatekoak eta eskaerak egiteko eskabide normalizatuak onartzen dituena.

Familia eta lana bateragarri egiteari buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren 8., 21. eta 40.4 artikuluen arabera, seme-alabak eta mendetasun-egoeran nahiz osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko langileentzako laguntzen zenbatekoak, familia-errenta estandarizatuaren atalaseak eta seme-alaba adingabeak zaintzeko zaintzaileak kontratatzeagatiko laguntzei dagozkien ehunekoak Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren Agindu bidez onartuko dira.

Agindu honen bidez, familia eta lana bateragarri egiteari buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuan aurreikusitako laguntzen zenbatekoak onartzen dira; kasu honetan, Jaurlearitzak esfortzu ekonomiko handia egin du, laguntza guztien zenbatekoa handitu egin baitu. Hartara, 2006ko irailaren 26ko Jaurlearitzaren Kontseiluak onartutako Familiei Laguntzeko Erakunde arteko II. Planaren ildo estrategiko honi garrantzi handia ematen zaiola agerian geratuko da.

Gainera, lehen bi laguntza-ildoetan –seme-alabak edo mendetasun-egoeran nahiz osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentziak hartzea edo lanaldia murriztea–, aurreko araudian finkatutako gizonen aldeko diskriminazio positiboa (laguntzaren zenbatekoa handiagoa zen gizonentzat emakumeentzat baino) ezabatu egin da. Diskriminazio horren helburua gizonen eta emakumeen artean ardurak partekatzea zen, seme-alabak eta mendetasun-egoeran dauden senitartekoak zaintzerakoan. Hala eta guztiz ere, datuak aztertuta konprobatu da ez dela ia eboluziorik izan laguntzak eskatzen dituzten gizonen ehunekoan eta, gainera, neurria onartezina da erantzunkidetasuna gauzatu ezin den kasuetan (guraso bakarreko familia izatea) edo bi gurasoak emakumeak direnean.

Hori dela-eta, neurria ez da eraginkorra izan lortu nahi ziren helburuak betetzeko. Horren ondorioz, garatzeko Agindu honetan aurreikusten diren zenbatekoak berdinak izatea bermatzen du familia eta lana

## Otras Disposiciones

### DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

3341

ORDEN de 30 de junio de 2010, de la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales, por la que se aprueban las cuantías de las ayudas y las instancias normalizadas de solicitud previstas en el Decreto 177/2010, de 29 de junio, sobre la conciliación de la vida familiar y laboral.

El Decreto 177/2010, de 29 de junio, sobre la conciliación de la vida familiar y laboral establece en sus artículos 8, 21 y 40.4 que las cuantías de las ayudas a personas trabajadoras para el cuidado de hijos e hijas, familiares en situación de dependencia o extrema gravedad sanitaria, los umbrales de renta familiar estandarizada y sus correspondientes porcentajes de ayuda por la contratación de personas cuidadoras para el cuidado de hijos o hijas menores serán aprobados mediante Orden de la Consejera o Consejero de Empleo y Asuntos Sociales.

La presente Orden, por la que se aprueban las cuantías de las ayudas previstas en el Decreto 177/2010, de 29 de junio, sobre la conciliación de la vida familiar y laboral supone un importante esfuerzo económico de este Gobierno ya que se eleva el importe de todas las ayudas. Ello materializa la importancia que se concede a esta línea estratégica del II Plan Interinstitucional de Apoyo a las Familias, aprobado por el Consejo de Gobierno en su sesión de 26 de septiembre de 2006.

Además, en las dos primeras líneas de ayudas -excedencias y reducciones de jornada de trabajo para el cuidado de hijos e hijas y familiares en situación de dependencia o extrema gravedad sanitaria- se elimina la discriminación positiva a favor de los hombres que la normativa anterior establecía y por la que se les reconocía una mayor cantidad de ayuda frente a las mujeres. Se pretendía con ello favorecer la corresponsabilidad de hombres y mujeres en el cuidado de los hijos e hijas y de familiares en situación de dependencia. Sin embargo, del análisis de los datos se deduce que apenas ha habido evolución en el porcentaje de hombres que se acogen a las ayudas, además, resulta inaceptable en aquellos supuestos en los que la corresponsabilidad no es posible -casos de monoparentalidad- o en aquellos supuestos en que ambas progenitoras son mujeres.

Por ello, la medida ha revelado ser ineficaz para alcanzar los objetivos que se pretendían. En consecuencia, el Decreto 177/2010, de 29 de junio, sobre la conciliación de la vida familiar y laboral establece

bateragarri egiteari buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuak, laguntzen hartzailearen sexuaren arabera-ko aldeak ezabatuta.

Laguntzen zenbatekoak berdindu eta handitu egin direnez, emakumeen kasuan eszedentzia hartzeagatik eta lanaldia murrizteagatik laguntzen batez besteko hazkundea % 55,77 izan da, eta gizonen kasuan % 18,65.

Seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeagatik laguntza-ildoak ere hobetu da; familia-errenta estandarizatuaren tarreak sinplifikatu egin dira eta orain bi dira: laguntzaren zenbatekoak handitu dira, baita diru-laguntza handiena lortuko duten onuradunen kopurua ere.

Hartara, Familiei laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legean definitutako familia-eredu berria sendotu nahi dugu; hain zuzen ere, autonomian, kide guztien arteko errespetuan eta bi bikotekideen arteko berdintasunean oinarritzen den eredu, biek ala biek ere lanbidean aurrera egiteko aukera berberak dauzkatela eta partekatzen dituztela.

Horretaz gain, Dekretu horren 11.1, 24.1, 33.7 eta 44.1 artikuluen arabera, laguntza-eskaerak eskabide normalizatuari aurkeztu behar dira eta eskabide-ereduak Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren Agindu bidez onartuko dira; Agindu honen bidez egin dugu hori.

Horri jarraiki, Familiaren Erakunde arteko Batzordeak zer esateko zuen entzunda, honako hau

#### EBATZI DUT:

##### **1. artikulua.**– Xedea.

Agindu honen xedea laguntzen zenbatekoak eta laguntzak eskatzeko eskabide normalizatuak onartzea da; hain zuzen ere, familia eta lana bateragarri egiteari buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren 8., 21. eta 40.4 artikuluetan aurreikusitako laguntzen zenbatekoak, eta 11.1, 24.1, 33.7 eta 44. artikuluetan aurreikusitako laguntzak eskatzeko eskabide normalizatuak onartzea.

**2. artikulua.**– Seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartzen edo lanaldia murrizten duten langileentzako laguntzen zenbatekoak.

Seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartzen edo lanaldia murrizten duten langileentzako laguntza ekonomikoa –betiere egutegiko 365 eguneko aldiari dagokionez eta dagokion sektore-eremuko lanaldi osoko kontratuari dagokionez– honako hau da:

1.– Seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartu duen langileentzako laguntza: 3.500 euro.

la garantía de que las cantidades de ayuda que se prevean en esta Orden de desarrollo sean iguales, eliminando toda diferencia en la cuantía de las ayudas que dependa del género del receptor de las ayudas.

La igualación y elevación de las cuantías explicada tiene como consecuencia que en el caso de las mujeres el incremento medio de las ayudas a las excedencias y reducciones de jornada haya sido de un 55,77% y en el caso de los hombres de un 18,65%.

La línea de ayudas destinada a la contratación de personas cuidadoras para el cuidado de hijos e hijas menores también ha sido mejorada, se han simplificado los tramos de renta familiar estandarizada reduciéndolos a dos: se elevan las cuantías de ayuda y el número de personas beneficiarias que van a acceder a la máxima subvención.

Pretendemos con todo ello consolidar un nuevo modelo de familia definido en la Ley 13/2008, de 12 de diciembre, de Apoyo a las Familias basado en la autonomía, el respeto entre todos sus integrantes y la igualdad de ambos miembros de la pareja, que comparten y disponen de las mismas oportunidades de desarrollo profesional.

Además, el referido Decreto en sus artículos 11.1, 24.1, 33.7 y 44.1 establece que las solicitudes de ayuda se presentarán en instancia normalizada cuyos modelos se aprobarán mediante Orden de la Consejera o Consejero de Empleo y Asuntos Sociales, lo que se efectúa a través de la presente Orden.

En su virtud, oídas la Comisión Interinstitucional de Familia,

#### RESUELVO:

##### **Artículo 1.**– Objeto.

El objeto de la presente Orden es la aprobación de las cuantías de las ayudas previstas en los artículos 8, 21 y 40.4 y la aprobación de las instancias normalizadas de solicitud de ayudas previstas en los artículos 11.1, 24.1, 33.7 y 44.1 del Decreto 177/2010, de 29 de junio, sobre la conciliación de la vida familiar y laboral.

**Artículo 2.**– Cuantías de las ayudas a personas trabajadoras que se acojan a excedencias o reducciones de jornada de trabajo para el cuidado de hijos o de hijas.

La ayuda económica a las personas trabajadoras que se acojan a excedencias o reducciones de jornada de trabajo para el cuidado de hijos o de hijas referida a un período temporal de 365 días naturales y a una contratación a jornada completa del ámbito sectorial que corresponda es:

1.– La ayuda a la persona trabajadora en excedencia por cuidado de hijos o de hijas: 3.500 euros.

2.– Seme-alabak zaintzeko lanaldia murriztu duen langilearentzako laguntza:

a) Lanaldi-murrizketa % 45ekoa edo gehiagokoa bada: 2.800 euro.

b) Lanaldi-murrizketa % 40koa edo gehiagokoa eta % 45etik beherakoa bada: 2.500 euro.

c) Lanaldi-murrizketa % 33koa edo gehiagokoa eta % 40tik beherakoa bada: 2.200 euro.

Eszedentzia edo lanaldi-murrizketa eskatu duenak lanaldi partzialeko kontratua badu, edo diruz laguntzeko moduko jarduna egutegiko 365 egun baino gutxiagoko aldietan gauzatzen badu, laguntzen zenbatekoa proportzioan kalkulatu da.

**3. artikulua.**– Mendetasun-egoeran dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartzen edo lanaldia murrizten duten langileentzako laguntzen zenbatekoa.

Mendetasun-egoeran dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartzen edo lanaldia murrizten duten langileentzako laguntza ekonomikoa –betiere egutegiko 365 eguneko aldiari dagokionez eta dagokion sektore-eremuko lanaldi osoko kontratuari dagokionez– honako hau da:

1.– Mendetasun-egoeran dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartu duen langilearentzako laguntza: 3.500 euro.

2.– Mendetasun-egoeran dauden senitartekoak zaintzeko lanaldia murriztu duen langilearentzako laguntza:

a) Lanaldi-murrizketa % 45ekoa edo gehiagokoa bada: 2.800 euro.

b) Lanaldi-murrizketa % 40koa edo gehiagokoa eta % 45etik beherakoa bada: 2.500 euro.

c) Lanaldi-murrizketa % 33koa edo gehiagokoa eta % 40tik beherakoa bada: 2.200 euro.

Eszedentzia edo lanaldi-murrizketa eskatu duenak lanaldi partzialeko kontratua badu, edo diruz laguntzeko moduko jarduna egutegiko 365 egun baino gutxiagoko aldietan gauzatzen badu, laguntzen zenbatekoa proportzioan kalkulatu da.

**4. artikulua.**– Osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartzen edo lanaldia murrizten duten langileentzako laguntzen zenbatekoa.

Osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartzen edo lanaldia murrizten duten langileentzako laguntza ekonomikoa –betiere

2.– La ayuda a la persona trabajadora en reducción de jornada de trabajo para el cuidado de hijos o de hijas es:

a) Cuando la reducción sea igual o superior al 45% de la jornada de trabajo: 2.800 euros.

b) Cuando la reducción sea igual o superior al 40% e inferior al 45% de la jornada de trabajo: 2.500 euros.

c) Cuando la reducción sea igual o superior al 33% e inferior al 40% de la jornada de trabajo: 2.200 euros.

Cuando la persona que haya solicitado la excedencia o la reducción de jornada estuviera contratada parcialmente o la actuación subvencionable se haya ejercitado por períodos inferiores a 365 días naturales, la cuantía de la ayuda se determinará de forma proporcional.

**Artículo 3.**– Cuantía de las ayudas a personas trabajadoras que se acojan a excedencias o reducciones de jornada de trabajo para el cuidado de familiares en situación de dependencia.

La ayuda económica a las personas trabajadoras que se acojan a excedencias o reducciones de jornada de trabajo para el cuidado de familiares en situación de dependencia referida a un período temporal de 365 días naturales y a una contratación a jornada completa del ámbito sectorial que corresponda es:

1.– La ayuda a la persona trabajadora en excedencia por cuidado de familiares en situación de dependencia: 3.500 euros.

2.– La ayuda a la persona trabajadora en reducción de jornada de trabajo para el cuidado de familiares en situación de dependencia es:

a) Cuando la reducción sea igual o superior al 45% de la jornada de trabajo: 2.800 euros.

b) Cuando la reducción sea igual o superior al 40% e inferior al 45% de la jornada de trabajo: 2.500 euros.

c) Cuando la reducción sea igual o superior al 33% e inferior al 40% de la jornada de trabajo: 2.200 euros.

Cuando la persona que haya solicitado la excedencia o la reducción de jornada estuviera contratada parcialmente o la actuación subvencionable se haya ejercitado por períodos inferiores a 365 días naturales, la cuantía de la ayuda se determinará de forma proporcional.

**Artículo 4.**– Cuantía de las ayudas a personas trabajadoras que se acojan a excedencias o reducciones de jornada de trabajo para el cuidado de familiares en situación de extrema gravedad sanitaria.

La ayuda económica a las personas trabajadoras que se acojan a excedencias o reducciones de jornada de trabajo para el cuidado de familiares en situación

dagokion sektore-eremuko lanaldi osoko kontratuari dagokionez– honako hau da:

1.– Osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko egutegiko 90 eguneko eszedentzia hartu duen langilearentzako laguntza: 863 euro.

2.– Osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko egutegiko 180 egunetan lanaldia murriztu duen langilearentzako laguntza:

a) Lanaldi-murrizketa % 45ekoa edo gehiagokoa bada: 1.380 euro.

b) Lanaldi-murrizketa % 40koa edo gehiagokoa eta % 45etik beherakoa bada: 1.232 euro.

c) Lanaldi-murrizketa % 33koa edo gehiagokoa eta % 40tik beherakoa bada: 1.085 euro.

Eszedentzia edo lanaldi-murrizketa eskatu duenak lanaldi partzialeko kontratua badu, edo diruz laguntzeko moduko jarduna goian adierazitakoak baino aldi txikiagoetan gauzatzen badu, laguntzen zenbatekoa proportzioan kalkulatu da.

**5. artikulua.**– Seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeagatik laguntzen zenbatekoa.

Familia eta lana bateragarri egiteari buruzko Dekretuaren 40. artikuluan xedatutako arauen arabera kalkulatu, 28.000 euroko edo gutxiagoko familia-errenta estandarizatuaren kasuan, enplegu-emaileak Etxeko Langileei buruzko Gizarte Segurantzaren Erregimen Bereziaren kotizazioari egin beharreko ekarpenaren % 100 lagunduko da diruz.

Familia eta lana bateragarri egiteari buruzko Dekretuaren 40. artikuluan xedatutako arauen arabera kalkulatu, 28.000 eurotik gorako familia-errenta estandarizatuaren kasuan, enplegu-emaileak Etxeko Langileei buruzko Gizarte Segurantzaren Erregimen Bereziaren kotizazioari egin beharreko ekarpenaren % 75 lagunduko da diruz.

**6. artikulua.**– Laguntza-eskaerak.

a) Seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartzen edo lanaldia murrizten duten langileen lehenengo laguntza-eskaerak eskabide normalizatuan –N hasierakoa– egingo dira. Eskabide-orria hemen aurkitzen da: [http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-contpfc/eu/contenidos/informacion/indice\\_ayudas\\_conciliacion/eu\\_indice/indice\\_ayudas\\_conciliacion.html](http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-contpfc/eu/contenidos/informacion/indice_ayudas_conciliacion/eu_indice/indice_ayudas_conciliacion.html).

Seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartzen edo lanaldia murrizten duten langileen laguntzaren jarraipen-

de extrema gravedad sanitaria referida a una contratación a jornada completa del ámbito sectorial que corresponda es:

1.– La ayuda a la persona trabajadora en excedencia por cuidado de familiares en situación de extrema gravedad sanitaria referida a 90 días naturales: 863 euros.

2.– La ayuda a la persona trabajadora en reducción de jornada de trabajo para el cuidado de familiares en situación de extrema gravedad sanitaria referida a 180 días naturales es:

a) Cuando la reducción sea igual o superior al 45% de la jornada de trabajo: 1.380 euros.

b) Cuando la reducción sea igual o superior al 40% e inferior al 45% de la jornada de trabajo: 1.232 euros.

c) Cuando la reducción sea igual o superior al 33% e inferior al 40% de la jornada de trabajo: 1.085 euros.

Cuando la persona que haya solicitado la excedencia o la reducción de jornada estuviera contratada parcialmente o la actuación subvencionable se haya ejercitado por períodos inferiores a los indicados, la cuantía de la ayuda se determinará de forma proporcional.

**Artículo 5.**– Cuantía de la ayuda por la contratación de personas trabajadoras para el cuidado de hijos o de hijas menores.

A una renta familiar estandarizada que, calculada según las reglas establecidas en el artículo 40 del Decreto sobre la conciliación de la vida familiar y laboral, resulte igual o inferior a 28.000 euros se le subvencionará el 100% de la aportación que legalmente le corresponda al empleador o a la empleadora a la cotización al Régimen Especial de Empleados de Hogar de la Seguridad Social.

A una renta familiar estandarizada que, calculada según las reglas establecidas en el artículo 40 del Decreto sobre la conciliación de la vida familiar y laboral, resulte superior a 28.000 euros se le subvencionará el 75% de la aportación que legalmente le corresponda al empleador o a la empleadora a la cotización al Régimen Especial de Empleados de Hogar de la Seguridad Social.

**Artículo 6.**– Solicitudes de ayuda.

a) Las solicitudes iniciales de ayuda a las personas trabajadoras que se acojan a excedencia o reducción de jornada de trabajo para el cuidado de hijos e hijas se realizarán en instancia normalizada: N inicial que se localiza en : [http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-contpfc/es/contenidos/informacion/indice\\_ayudas\\_conciliacion/es\\_indice/indice\\_ayudas\\_conciliacion.html](http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-contpfc/es/contenidos/informacion/indice_ayudas_conciliacion/es_indice/indice_ayudas_conciliacion.html).

Las solicitudes de continuación de la ayuda a las personas trabajadoras que se acojan a excedencia o

eskaerak eskabide normalizatuan –N jarraipena– egingo dira. Eskabide-orria hemen aurkitzen da: [http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-contpfc/eu/contenidos/informacion/indice\\_ayudas\\_conciliacion/eu\\_indice/indice\\_ayudas\\_conciliacion.html](http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-contpfc/eu/contenidos/informacion/indice_ayudas_conciliacion/eu_indice/indice_ayudas_conciliacion.html).

b) Mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartzen edo lanaldia murrizten duten langileen lehenengo laguntza-eskaerak eskabide normalizatuan –D hasierakoa– egingo dira. Eskabide-orria hemen aurkitzen da: [http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-contpfc/eu/contenidos/informacion/indice\\_ayudas\\_conciliacion/eu\\_indice/indice\\_ayudas\\_conciliacion.html](http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-contpfc/eu/contenidos/informacion/indice_ayudas_conciliacion/eu_indice/indice_ayudas_conciliacion.html).

Mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartzen edo lanaldia murrizten duten langileen laguntzaren jarraipen-eskaerak eskabide normalizatuan –D jarraipena– egingo dira. Eskabide-orria hemen aurkitzen da: [http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-contpfc/eu/contenidos/informacion/indice\\_ayudas\\_conciliacion/eu\\_indice/indice\\_ayudas\\_conciliacion.html](http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-contpfc/eu/contenidos/informacion/indice_ayudas_conciliacion/eu_indice/indice_ayudas_conciliacion.html).

c) Seme-alabak, edo mendetasun-egoeran nahiz osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartzen edo lanaldia murrizten duten langileak ordeztzeko laguntza-eskaerak eskabide normalizatuan egingo dira. Eskabide-orria hemen aurkitzen da: [http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-contpfc/eu/contenidos/informacion/indice\\_ayudas\\_conciliacion/eu\\_indice/indice\\_ayudas\\_conciliacion.html](http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-contpfc/eu/contenidos/informacion/indice_ayudas_conciliacion/eu_indice/indice_ayudas_conciliacion.html).

d) Seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeagatik lehenengo laguntza-eskaerak eskabide normalizatuan –Z hasierakoa– egingo dira. Eskabide-orria hemen aurkitzen da: [http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-contpfc/eu/contenidos/informacion/indice\\_ayudas\\_conciliacion/eu\\_indice/indice\\_ayudas\\_conciliacion.html](http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-contpfc/eu/contenidos/informacion/indice_ayudas_conciliacion/eu_indice/indice_ayudas_conciliacion.html).

Seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeagatik laguntzaren jarraipen-eskaerak eskabide normalizatuan –Z jarraipena– egingo dira. Eskabide-orria hemen aurkitzen da: [http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-contpfc/eu/contenidos/informacion/indice\\_ayudas\\_conciliacion/eu\\_indice/indice\\_ayudas\\_conciliacion.html](http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-contpfc/eu/contenidos/informacion/indice_ayudas_conciliacion/eu_indice/indice_ayudas_conciliacion.html).

#### XEDAPEN GEHIGARRI

Lana eta familia bateragarri egiteko diru-laguntzen aurrekontu-zuzkidura jakinarazteko Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2010eko martxoaren 16ko Aginduaren arabera, Lana eta familia bateragarri egiteko neurriak arautzen dituen uztailaren 17ko 118/2007 Dekretuan aurreikusten diren diru-laguntza

reducción de jornada de trabajo para el cuidado de hijos e hijas se realizarán en instancia normalizada: N continuación que se localiza en : [http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-contpfc/es/contenidos/informacion/indice\\_ayudas\\_conciliacion/es\\_indice/indice\\_ayudas\\_conciliacion.html](http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-contpfc/es/contenidos/informacion/indice_ayudas_conciliacion/es_indice/indice_ayudas_conciliacion.html).

b) Las solicitudes iniciales de ayuda a las personas trabajadoras que se acojan a excedencia o reducción de jornada de trabajo para el cuidado de familiares dependientes o en extrema gravedad sanitaria se realizarán en instancia normalizada D inicial que se localiza en: [http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-contpfc/es/contenidos/informacion/indice\\_ayudas\\_conciliacion/es\\_indice/indice\\_ayudas\\_conciliacion.html](http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-contpfc/es/contenidos/informacion/indice_ayudas_conciliacion/es_indice/indice_ayudas_conciliacion.html).

Las solicitudes de continuación de la ayuda a las personas trabajadoras que se acojan a excedencia o reducción de jornada de trabajo para el cuidado de familiares dependientes o en extrema gravedad sanitaria se realizarán en instancia normalizada: D continuación que se localiza en: [http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-contpfc/es/contenidos/informacion/indice\\_ayudas\\_conciliacion/es\\_indice/indice\\_ayudas\\_conciliacion.html](http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-contpfc/es/contenidos/informacion/indice_ayudas_conciliacion/es_indice/indice_ayudas_conciliacion.html).

c) Las solicitudes de ayuda para sustituir a personas trabajadoras acogidas a una excedencia o reducción de jornada de trabajo para el cuidado de hijos o de hijas o de familiares dependientes o en extrema gravedad sanitaria se realizarán en instancia normalizada que se localiza en: [http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-contpfc/es/contenidos/informacion/indice\\_ayudas\\_conciliacion/es\\_indice/indice\\_ayudas\\_conciliacion.html](http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-contpfc/es/contenidos/informacion/indice_ayudas_conciliacion/es_indice/indice_ayudas_conciliacion.html).

d) Las solicitudes iniciales de ayuda por la contratación de personas trabajadoras para el cuidado de hijos o de hijas menores se realizarán en instancia normalizada: Z inicial que se localiza en: [http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-contpfc/es/contenidos/informacion/indice\\_ayudas\\_conciliacion/es\\_indice/indice\\_ayudas\\_conciliacion.html](http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-contpfc/es/contenidos/informacion/indice_ayudas_conciliacion/es_indice/indice_ayudas_conciliacion.html).

Las solicitudes de continuación de la ayuda por la contratación de personas trabajadoras para el cuidado de hijos o de hijas menores se realizarán en instancia normalizada: Z continuación que se localiza en: [http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-contpfc/es/contenidos/informacion/indice\\_ayudas\\_conciliacion/es\\_indice/indice\\_ayudas\\_conciliacion.html](http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-contpfc/es/contenidos/informacion/indice_ayudas_conciliacion/es_indice/indice_ayudas_conciliacion.html).

#### DISPOSICIÓN ADICIONAL

La Orden de 16 de marzo de 2010, de la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales, por la que se da a conocer la dotación presupuestaria de las actuaciones subvencionables en el ámbito de la conciliación de la vida familiar y laboral destina en el ejercicio 2010 a las líneas subvencionales previstas en el artículo 1 del

ildoetarako 26.978.261 euro bideratu dira 2010eko ekitaldian.

Familia eta lana bateragarri egiteari buruzko Dekretuan aurreikusitako neurriak aplikatuz, eta Agindu honetan aurreikusitako laguntzen zenbatekoak kontuan izanik, laguntzak emateko aurrekontuzuzkiduratzat ezarritako gehieneko zenbatekoa handitu egin da; guztira 38.403.604 euro dira, honela banakatuta:

a) 32.499.230 euro seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartzen edo lanaldi murrizten duten langileei laguntzeko.

b) 1.387.326 euro mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartzen edo lanaldia murrizten duten langileei laguntzeko.

c) 3.200.000 euro seme-alabak, edo mendetasun-egoeran nahiz osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartzen edo lanaldia murrizten duten langileak ordeztzeko laguntzetarako.

d) 1.317.048 euro seme-alaba adingabeak zainduko dituzten langileak kontratatzeko laguntzetarako.

#### AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.**– Garapena eta betearazpena.

Gizarte Gaietako sailburuordeari ematen zaio Agindu hau garatu eta betearazteko behar diren xedapenak hartzeko aginpidia.

**Bigarrena.**– Errekurtsoak.

Agindu honek amaitu egiten du administrazio-bidea. Aginduaren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuari, hilabeteko epean, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

**Hirugarrena.**– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko ekainaren 30a.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua,  
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.

Decreto 118/2007, de 17 de julio, por el que se regulan las medidas de conciliación de la vida laboral y familiar, la cantidad de 26.978.261 euros.

La aplicación de las medidas previstas en el Decreto 177/2010, de 29 de junio, sobre la conciliación de la vida familiar y laboral y las cantidades de ayudas previstas en la presente Orden suponen un incremento de la cuantía máxima establecida como dotación presupuestaria para la concesión de ayudas que queda fijada en 38.403.604 euros, con el siguiente desglose:

a) 32.499.230 euros para ayudas a personas trabajadoras que se acojan a excedencia o reducción de jornada de trabajo para el cuidado de hijos e hijas.

b) 1.387.326 euros para ayudas a personas trabajadoras que se acojan a excedencia o reducción de jornada de trabajo para el cuidado de familiares dependientes o en extrema gravedad sanitaria.

c) 3.200.000 euros destinados a ayudas para sustituir a personas trabajadoras acogidas a una excedencia o reducción de jornada de trabajo para el cuidado de hijos o de hijas o de familiares dependientes o en extrema gravedad sanitaria.

d) 1.317.048 euros destinados a ayudas por la contratación de personas trabajadoras para el cuidado de hijos o de hijas menores.

#### DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**– Desarrollo y ejecución.

Se faculta al Viceconsejero de Asuntos Sociales para adoptar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución de la presente Orden.

**Segunda.**– Recursos.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán las personas interesadas interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera o Consejero de Empleo y Asuntos Sociales en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

**Tercera.** – Efectos.

La presente Orden surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de junio de 2010.

La Consejera de Empleo y Asuntos Sociales,  
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.